

## GARAPENERAKO LANKIDETZAKO PROIEKTUAK FORMULATZEAN GIZA ESKUBIDEEN IKUSPEGIA BARNE HARTZEA

2019ko urriaren 7tik 10era  
9:30 - 14:30

Bizkaiko Foru Aldundia  
Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Saila  
(Orueta Apezpikuaren Kalea, 6)  
BILBO

Azken urteotan, nazioarteko komunitateak garapenerako eta pobrezia errotik kentzeko bere gain hartutako erronkek giza eskubideetan oinarritutako erreferentzia-marko bat dute, eta modu horretan, aintzat hartzen dituzte bai 2003. urtean Nazio Batuek zehaztutako gidalerroak, eta bai pobrezia errotik desagerrarazteko ikuspegi holistiko batetik parte hartu beharrari buruzko kontsentsu orokortua ere bai. Hala, parte-hartzeaz, kontuak emateaz eta eskagarritasunaz, eta prozesuaren parte diren kolektiboen gaitasunez eta horiek aintzat hartzeaz hitz egin beharra dago. Finean, giza eskubideez.

Gizarte-erakundeek, garapeneko agenteak garen neurrian, gure plangintzetan oso konpromiso argia hartu dugu giza eskubideekiko. Horretarako, ezinbestekoa da entitateen bizitzako arlo guztietan eragina duten lanabesak egokitzea.

Ikastaroaren helburua **gure jardunei buruzko hausnarketa egitea eta lanabes jakin batzuekin trebatzea da**, arreta berezia jarrita garapeneko proiektuak planifikatzeko eta formulatzeko lanabesetan. Horretarako, eta marko logikoko proiektuen formulazioaren metodologia oinarri hartuz, zenbait pauso, printzipio eta gidalerro proposatuko dira. Horiek lagunduko dute gobernuz kanpoko erakundeek orain arte erabilitako metodo eta paradigmatan giza eskubideen ikuspegia modu integral eta osagarrian txertatzen.

Horrez gainera, taldeak honako honetaz hausnarketa egin, eta landu egingo du: giza eskubideen ikuspegiari jarraituz planteatutako eta abiatutako garapenerako lankidetzaproiektu eta -programetan, nola txertatu gizarte-eraginaren ikuspegia eta eragin hori neurtzeko eta kudeatzeko tresnak.

## Nori zuzenduta

Giza eskubideetan jakintza/esperientzia duten GGKE-etako pertsonal teknikoari, giza eskubideetan jakintza/esperientzia duten lankidetzaren arloko graduondoko ikasleei, eta lankidetzaren jakintza/esperientzia duten giza eskubideen arloko graduondoko ikasleei zuzenduta dago ikastaroa.

Taldea gehienez ere 20 lagunekoa izango da, errealitate zehatz eta errealekin lotutako kasu praktikoei buruzko talde-lana egin ahal izateko.

## Landuko diren edukiak

### **1. BLOKEA – Sarrera Giza Eskubideen Ikuspegiari.**

- Giza eskubideak Nazio Batuen Erreformaren testuinguruan.
- Giza Eskubideen Ikuspegia programazio-prozesuan.
- EBDHren eta beste garapen-ikuspegi batzuen arteko erlazioa.

### **2. BLOKEA – Formulazioa Giza Eskubideen Ikuspegitik.**

- Identifikazioa
- Planifikazioa eta formulazioa
- Jarraipena eta ebaluazioa

### **3. BLOKEA – Nola neurtu eta kudeatu, giza eskubideen ikuspegia kontuan hartuta, gure esku-hartzeak duten gizarte-eragina.**

Parte-hartzaileek, ikastaroa amaitzerako, garapen-prozesuetan eta gizarte-eraginean giza eskubideen ikuspegia txertatzeak zer aukera ematen dituen hausnartuko dute, taldean, bakoitzaren praktikan eta esperientzietan oinarrituta.

Ikastaroaren amaieran, parte-hartzaileek lanabesak izango dituzte honako hauek egiteko:

- Giza eskubideen estandarrak eta printzipioak programazio-prozesuei aplikatu.
- Programazio-prozesuetan giza eskubideen ikuspegia aplikatzeak dakarren balio erantsiaz jabetu.
- Kausalitatearen analisia, rolen analisia eta gaitasunen analisia programazio-prozesuan aplikatu.
- Eskubideen titularren eta betebeharren titularren elkarrizketa-dinamika ikusi, monitorizazioaren berezitasunak aintzat hartuz.
- Giza eskubideen ikuspegiaren arabera diseinatu eta zabaltu diren esku-hartzeen gizarte-eragina neurtzeko gakoak zein diren jakin.